# BARREN

2000ko urtarrilaren 14a
VIII. urtea - **304. zicia**

ELGOIBARKO ASTEKARIA


**ZENBAT BURU**

**ERREPORTAJEA**

**GEHIGARRIA**

Kale zu baserrira

r;X:fif'Ns-1.~~1~411 :=-7

**BER**

1 MIL .1~

57-7'—#

mai

mª a,2>

Atx amaikako zuze ari ohia

**KUL ti1A**

San Anton jaiaic

urtorrila



# Egutegia

1 12

D:w w3112'an bizi garen jakiteko modua

"Urtarrilak 14, ostirala • San Felix • Ilgora "

K U L T U R A

# RADICO GOLDEN



## GOLDEN APPLE QUARTET

urtarrilak **14,** ostirala
gaueko 22:30ean
Herriko Antzokian
sarrera 700 pta.

Kultura



AMAIA URZELAI

# Gaztetxian fama txarra

Orain dela urte asko, asko-asko, neskatxuek, ding-dang-dong entzun, eta motxila hartuta, galtzerdi arroxak janzten zituzten. Batzuek, mototxak zituzten buruan, beste batzuek ez. Nerea izeneko dantzako irakasleak, makila hartu eta Iun¯aren kontra jotzen zuen, beheko pisukoen musika altuegi zegoelako. Orain dela urte asko, nere amets gaiztoetako protagonistak Gaztetxean zeudela erakutsi zidan Elgoibarrek.

Duela gutxiago, iturriaren ez dakit zenbazarten urtemuga beteta zegoenean, lokal bat,eta beste bat okupatu ziren. Gaztetxea lortzeko gogoa piztuta zegoen.

Gero, herri guztiak esan zuen:" Bai! Eman aukera bat!". Eta oraingo tokira ailegatu ginen. Tokira baino ez. Urakan bat jasan zuen pareta zikin batzuk lortu genituen.

Momentu honetan, Gaztetxeko bulegotik, besaulkietan jarrita, hamahiru pertsona ikusten ditut, kolore eta margoz betetako pareten babesean, berbetan. Bulegoan, eskanerraren inguruan, 3 asanbladakide daude. Hor parean jarrita, beste bat. Saskibaloiko baloia entzuten da urrunean: Ruperren kantuei perkusio originala gehitzen dabil. Une honetan, ez da ping-pong, ping-pong entzuten. Arrazoia perkusio originalaren golpeak ote'? Nork daki! Ring..."Bai?'"...klak! Listo: Zapatuko kontzerturako dena lotuta dagoela ziurtatu berri digute.

Eta Gaztetxeko jendea zein txarra eta itxia den dakiten denei berbetan entzutean, barrez lehertzen naiz, edo haserre bizian sutan ez jartzeko, arnasa hartzen dut sakon-sakon. Beste batzutan, poz-pozik jartzen naiz Gaztetxeko kontu askorengatik.

Badakit ez duzuela denok Gaztetxea deabruen biltokia denik uste. Zuen dendetara joaten garenean egiten dizkiguzuen erregaloak dira honen froga.

**"Momentu honetan Gaztetxeko bulegotik, besaulkietan jarrita, hamairu peptsona ikusten ditut, kolore eta margoz betetako pareten babesean berbetan"**

Astekari honetan besaulkiak behar genituela esatean izandako erantzunak, gauza bera adierazten du.

"Ahal bada, herriko dendetan erosi, hipermerkatu haundixak albo batera laga", da gure lemetako bat. "Zikintzen dozuna garbitxu", beste bat.

Etiketak. Gorrotozko etiketak. Ezjakintasuna: Etiketen produzitzaileen artean monopolizatzailea. Ezjakintasuna, Gaztetxea eta koktelera bat, mamuz betetako zientzia fikziozko filma?

Esan aI dut domeketan tearen txokoa zine areto bilakatzen dela'? Eta liburutegitxo bat sortzen hasita gaudela?

-Eskobia nun dao?

-Hor, eskailera azpixan dauan atia zabaldu, eta hor.

P.D: Ez. Garbitzaile, arotz eta kamarerook ez dugu xoxik poltsikora eramaten Gaztetxean lana egiteagatik.

Beste bat arte, edo arratsaldeko 19:00ak arte.

*Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagnn inguru aukeratzen dira eta bandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.*

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
ri 943 74 41 12
Publ izitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.conn
Helbide informatikoa:
www.ihard un.conn/barren

ARG/TARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGURTZAILEA Elgoibarko Udala
KAZETARIAK trati Agirreazaldegi, Asier Orbea, Jon Eugi
PUBLIZITATEA Maltane Cld
MAKETATZAILEA Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
GERENTZIA Rala Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, tdoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, lon Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, lon Loiola, Ongarri Zne Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, lban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre,
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRINIATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.100 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

*Elgaibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



EIPIE gizarte-ekintza obrzt social

DANOBAT

m2SGOIT1
GRUPO DANOBAT




## Eskerrak ematen

Elgoibarko Ikastolak, Gabon Zahar feriako txosna zela-eta emandako laguntzagatik; Udalari, Deberneni, harakinei, montajean eta barraren barrutik nahiz kanpotik parte hartu zuten guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkie.

BestaIde, zozketatu eta jaso gabe gelditu ziren "loteak" San Lazaro egoitzara eraman genituela argitu nahi dugu.

**Ikastolako Lantalde Batzordea**

## Odol emaileei eskerrak

**Elgoibarko** Odol Emaileen Elkarteko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu bazkide babesleei, odol emaleei eta laguntzaileei. Izan ere, ezinbestekoa izan zaigu zuen laguntza gure lana egiteko orduan. Aipamen berezia egin nahi diegu Udalari, Altzolako urak enpresari, Ibar Txiki edari banatzaileari, Julio Bueno ardoei (Aitz-Bizkar) eta Eroskiri. Elgoibarko ordezkaritzak Gipuzkoako odol bankura 750 odol hoditxo (300 litro) bidali zituen. Ohar honen bidez herritar guztiak animatu nahi ditugu gure elkartearekin bat egitera eta odola ematera, batez ere, 18 urtetik gorako gazteak. Eskerrik asko guztioi, Zorionak eta Urte Berri On!

**Elgoibarko
Odol Emaileen Elkartea**

## Eskerrak guztioi

an Lazaro egoitzako bizilagun zuztiok, Elgoibarko erakunde, eIkarte, ikastetxe, talde eta pertsona guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Gabon jaietan eta urtean zehar emandako laguntzarengatik, eta Urte Berri Ona opa dizuegu herritar guztioi.

San **Lazaro egoitzako
bizilagunak**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz gutiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

## GALDERAK

• Elgoibarko auto gidari batek honako galdera luzatu digu: Elgoibarren ba al dago grua zerbitzurik? Erantzuna jakiteko Elgoibarko Udaltzainei deitu diegu eta honako hau esan digute: Elgoibarren ez dago gruarik, baina beharrezkoa denean Udaltzainon ardura da Eibarko gruari deitzea eta honek jasotzen ditu autoak. Ibilgailuak erretiratzeko arrazoiak hauek izan daitezke: Badoetan aparkatuta egotea, garajeko jabeak autoa atera nahi izatea, feria egunetan edo ekitaldi bereziak daudenean eta autoak zirkulazioa oztopatzen duenean, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia galerazten duenean eta elbarrien lekuetan edo zebrabideetan aparkatzea. Azken bi kasuetan oraindik ez ditugu autoak erretiratzen, grua bakarm baitago Eibar, Elgoibar eta Ennuarako. Autoa gruak eraman ezkero, jabea San Roke auzoan dagoen depositora joan beharko da bila eta aurtengorako jarri duten multa 8.110 pezetakoa da.

## TXALOAK

• BARRENeko lankideok eskerrak eman nahi dizkizuegu Gabon jaietan gutaz gogoratu eta zorion agurrak bidali dizkiguzuen guztioi. Asko izan baitzarete Elgoibarren zein herritik kanpo egonik postalak edo eskutitzak bidali dituzuenak. Mila esker denoi.

• Herritar batek Elgoibarko katekistak eta laguntzaileak txalotu nahi ditu, "Erregeen kagalgata antolatzen hainbeste urtetan egin duten lana benetan txukuna eta txalogarria izan da. Oso ikuskizun polita izaten da eta eskenak ematea egokia iruditu zait. Aurrerantzean ere jarrai dezatela lanean, herriko haurrek ezezik nagusiok ere gozatu egiten baitugu errege bezperan".

## KEXAK

• Herritar bat kexa honekin inguratu zaigu BARRENera: Duela urte batzuk Bolatokiko parkean eta Ubitarten dauden iturriak oso apain jarri zituzten (lorekin, belan¯arekin...) eta ura ere botatzen zuten. Gaur egun ordea, oso itxura eskasa daukate. Beraz, dagokionari eskertuko nioke iturri hauek txukundu balitu. Orain urte batzuk egin zuten eta ez da ezinezkoa berriz apaintzea.





*ESKERTZA*

*2000ko urtarrilaren 3an, 67 urte zituela hil zen*
*EUGENIO ANDONEGI JUARISTIren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*ESKERTZA*

*2000ko urtarrilaren 4an, 91 urte zituela hil zen*
*MARIA AYESTARAN GALPARSORO (Patxi Mendizabalen alarguna)ren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*I. URTEURRENA*

*1999ko urtarrilaren 12an, 75 urte zituela hil zen*
*CARMEN ZULAIKA URANGAren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Mendaroko Azpilikueta elizan igandean, hilak 16, goizeko 11:00etan.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# zeill egunetan bizi gara?



*Urte berriaren hasierarekin batera, etxeko egutegiak berrifzeko garaia iristen do. Izan ere, nork ez du dagoeneko handik edo hemendik egutegi bat* eskuratu. *Egutegiak non sartu ez dakienik ere tzango da ziurrenik, etxe ondoko denda* edo tabernakoa *dela, lan egiten dugun egoresakoo* edo *gure ohiko banketxekoa..., azkenerako egutegi mordoa pilatzen da etxean. Itxura* eta estilo *guztietakoak izaten dira: karteran sartzen diren egutegi txikiak, paretean zintzilikatzen diren mural estiloko egutegi lancluagoak, ordenagailu edo* mahai *gainean ipinIzeko balio dutenalL. Egia esan, mila erafako egutegiak daude, aukerak mugagabeak baitira diseinuan izan diren aurrerapenei esker. Egutegien inguruan gehiago lakin* nahian, *herrian egutegiak lantzen dituzten 4 inprimategletara jo dugu.*

A*rrillaga, Debape, Murlumer eta Nava* dira herriko lau inprimategiak. Guk, bertako arduradunekin; Maite, Jose Luis, Felipe eta Eduardorekin egutegiak lantzeko erabiltzen dituzten teknika eta beste hainbat xehetasunen inguruan berba egin dugu. Egutegiak ateratzeko ohitura, azken urteotan indarra galtzen ari dela aipatu digute guztiek. "Lehen egutegi bat izatea garrantzitsuagoa zen. Egun, berriz, komertzio txikiak eta nagusi edo edadetuak dira egutegi bat izateari garrantzi gehien ematen diotenak". Maitek azaldu digunez, "pertsona nagusi askok eskatzen dizkigute urrunetik ikusteko moduko zenbakiak dituzten egutegiak. Ikusmen arazoak direlaeta, zailtasunak dituzte ohiko egutegiekin eta beraientzat propio egindakoak eskatzen dizkigute. Gainera, santutegia daukatenak nahi dituzte, ahalik eta egutegi konpletoenak, alegia.". Hala ere, Jose Luisek azaldu digun moduan, "tabernak eta dendak dira gure bezerorik onenak. Komertzioetan bezeroen artean egutegiak banatzea, beraiekiko detailetxo bat izatea modukoa da. Gainera, zenbaki bat inprimatu eta errifa moduan banatzeko ohitura zabaltzen ari da azken aldian".



*Ordenagailuen eta disentuarett bwerapentrk asko zabaldu ditu era guztietako egutegiak egiteko dtaNk inprimitzeko teknika zaharrak hobetuz.*

## Egutegi bat egifeko prozesua

Elkartearen, enpresaren edo negozioaren izena daraman egutegia ateratzea edonoren esku dago gaur egun. Era eta prezio guztietakoak daude aukeran. Arruntenak poltsikoko egutegiak dira. Inprimategiek katalogoak izaten dituzte eta bertatik aukeratzen dira gustuko irudiak eta egutegi kopurua. Egutegiaren beheko partea, hau da, hilabeteak eta egunak agertzen direna, ez dute inprimategian egiten, "horretaz beste enpresa bat arduratzen da, zati guztiak guk egitea garestiegia baita. Egutegi batzuk goikaldean izaten duten burdina egiteko adibidez, makina berezi bat behar da eta produkzio kostuak gora egiten du".

Eduardok azaldu digunez, "Elgoibar moduko herri batean poltsikoko egutegien 500 edo 1000 aleko eskariak egitea da ohikoena". Ale bakoitzak 10 pta. balio ditu gutxi gorabehera. DIN-A4 edo folio tamainako egutegiak, berriz, 250 pta. balio du aleko. Katalogotik aukeratutakoak askoz ere merkeagoak dira, egutegi pertsonalizatuak, berriz, garestiagoak. Enpresaren argazkia daraman egutegia diseinatzea garestiagoa da. Inprimategiak aro berrien haizeetara egokitzen ari dira eta ordenagailuz landutako egutegien diseinuek oukera asko eskaintzen dituzte, eta narberaren irudia agertzen den egutegiak ere egin daitezke nahi izanez gero.

# egutegi

## mota ezberdinak

### Egutegiep funtzio ezberdinak

Izatez, urteko egun guztien berri eta argibideak dakartzan taula, orria edo orri-multzoa da egutegia. Zein egunetan bizi garen jakiteko baliagarria izateaz gain, eguzkia eta ilargiaren gorabeherak, santutegia eta beste hainbat bitxikeria eta datu ere eskaintzen ditu.

Hala ere, beste hainbat funtzio izan ditzake ia etxe guztietan aurki genezakeen objetu arrunt honek. Poltsikoko egutegiek aukera asko eskaintzen dituzte. Txiste eta irudi ipikanteak dituzten ohiko egutegiez gain, informazioa eskaintzen duten egutegi praktikoak ere badaude: Euroaren balioa ikasteko lagungarriak direnak, osasun gomendioak dituztenak, telefono interesgarriak, mapak, hirien arteko distantzien berri ematen dutenak... Egutegien estetikak edo itxurak bultzatuta, badago egutegiak kolekzionatzen dituenik ere. Batez ere poltsikoko egutegiak kolekzionatzen dituzte. Felipek aipahu digunez, "Palentztatik eta hurrunagotik ere deitu izan clidate egutegi txiki horietako bat edo beste dudan galdezka, kolekzionatu egiten dituzten asko ezagutzen ditur.

### Euskarazko lehen egutegia gpustu batetik sortu zen

Egutegi desberdinak aztertzen ari ginela, Argia astekariak argitaratu duen egutegian gauza kurioso batekin egin dugu topo. Izan ere, bertan agertzen denez, euskarazko lehenbiziko egutegia chpustu baten ondorioz plazaratu zen 1 81 5.ean. Jose Paulo Ulibarri arabarrak erdaldun batekin izan zuen eztabaidaren ondorioz sortu zen euskarazko lehenbiziko egutegia. Erdaldunak euskarak ezertarako ez zuela balio aurpegiratu zion Ulibarriri, ezta egutegi bat egiteko ere. Ulibarrik, 8 egun aski izango zituela egutegia egiteko esan zion. Erdaldunak, berriz, hala egiten bazuen inprimategiko gastuak bere gain hartuko zituela erantzun zion. Gauzak horrela, Bilbon argitaratu zen "Eusquerasco egunkaria erderazcotic itzuliya Vizcaya, Gipuzcoa eta Arabaco probintzientzar. Hala eta guztiz, erdaldunak ez zuen bere hitza bete eta inprimaketa ordaindu gabe laga zuen. Baina euskarazko lehen egutegia sortzen lagundu zuen erdaldunaren burugogortasunak..



*Poltsikoko egutegiek tabernari, dendari eta grenzioetako langileen artean dute arrakasta.*




*Paretean zintzilikatzen direnak ia etxe guztietako sukaldeetan aurki ditzakegu.*




*Diseinuan izan diren aurrerapenei esker, egutegi bitxiak sortzeko aukera dago.*




*Egutegi askok funtzio bat baino gehiago betetzen dute. Lapitzontzi hau da adibiderik garbiena.*



*Mahai gaineko egutegiak bulegoetan eta enpresetan erabiltzen dira, batez ere.*

# Beherapenen zain egoten al zara erosketak egiteko?



**EDURNE ZABALETA**
**73 urte, etxekoandrea**

Ez, normalianerosten dot. Rebajetan askotan engainuak eoten dia eta gainera, aukera gitxiao eukitzen da. Numero gitxi gelditzen dia piskat berandu jun ezkero.



**JON SIRABARRIETA**
**40 urte, espezialista**

Generalian ez. Gauza batzuk erosteko itxoitzen dot, baina normalian bihar doten momentuan erosten ditxut gauzak. Rebajetan ezin da guztiz fixau saltzen ditxuenekin.



**FEUX VILLAHOZ**
**57 urte, pulidorea**

Ez, beherapenetan askotan gauzarik txarrenak jartzen dituzte salgai. Behin edo behin merkealdietan erosi izan dut eta produktuak ez zaizkit onak atera.



**MAIZTEG1**
**64 urte, etxekoandrea**

Batzutan bai. Gabonetan hainbeste gastau ostian, aprobetxatzen ditxut rebajak. Hala ere, rebajak dialako biharrezkuak ez dian gauzak ez ditxut erosten, kontuz ibiltzen naiz.



**SHBLA PEREZ**
**17 urte, garbitzailea**

Bai, ona da beherapenen zai egotea, beti aurkitzen baitira gauza merkeagoak. Elgoibarren gustukoa dudan zerbait ikusiz gero, bertan erosten dut, bestela, kanpoan.



**JOSU MANCHA**
**17 urte, ikaslea**

7ain ez. Onena gauzak bihar dianian erostia dala pentsatzen dot. Beherapenak gertu badaude piskat itxoitzia ere ez dao hain gaizki, erosten dozuna bihar izan ezkero behintzat.




# ISPILUARI BEGIRA



fin o,7 ‹?/1 1ci

NETTO **merkatalguneko paperdendakoa**

**-Zer da gehien saltzen duzuena? -** Batez ere aldizkariak, eta era guztietakoak gainera. Gabonetan, berriz, loteria.
**-Zortean, kasualitatean ala esfortzuan sinisten duzu?**
- Dudarik gabe, esfortzuan.
**-Loterian 100 miloi tokatuz gero, zer egingo zenuke?**
- Senide asko gara eta denen artean banatuko nuke. Hala ere, familia aurrera ateratzearekin nahikoa dut.
**-Zenbatekoa izan da eman duzuen saririk handiena?**
- Aurreko postua hartu eta 12 egunetara, 360 milioiko sari bat banatu genuen.
**-Sarituek eman al dizuete opari berezirik esker onez?**
- Sari txikiak irabazi dituztenek lagatzen dituzte eskupeko handienak.
**-Loteriarik tokatu al zaizu sekula?**
- 210.000 pta.koa izan da irabazi dudan saririk handiena.
**-Zure bizitzako loteriarik onena? -** Ama izatea.
**-Superstizioso asko ezagutzen al dituzu? -** Bai, loteria erosi zuen lagun batek esaterako, zenbaki guztien batura 13 izan zedila nahi zuen. Beste askok, berriz, aurrekoak hartu duen zenbaki berdina eskatzen **dute.**
**-Gustuko zenbaki bat? -** 22a
**-Zein da zenbaki salduena? -** 5ean bukatzen direnak. Bestalde, 1999 eta 2000 zenbakiak asko eskatu dizkigute aurten, nahiz eta ez saldu.
**-Zenbat diru gastatzen du Ioterian gehien jokatzen duen elgoibartarrak? -** Gutxi gora-behera 30.000 pta. astean.
**-Nondik hasten zara egunkaria irakurtzen? -** Irakurtzeko astia dudanean, lehenengo orrĭink hasten naiz.
**-Komunera aldizkaririk eramaten a1 duzu? -** Ez.
**-Erretzailea al zara? -** Ez.
**-Leku publikoetan erretzearen alde edo kontra zaude?**
- Leku publikoetan erretzea debekatzearen alde nago, keak kalte handia egiten baitit eztarrian.
**-Zer ospatzeko erreko zenuke puru eder bat?**
Pakea lortu dugula ospatzeko.
**-XX. mendeko asmakizunik onena? -** Berogailu zentrala.





**HAUEK DIRA urtarrilaren 10eko zozketaren** IRABAZLEAK:

| | |
|---|---|
| Arantza Urain | Garbiñe Beristain |
| Luis Prado | Maruja Zdzquez |
| Nerea Ezkurra | Amparo Cruz |
| Mertxe Etxeberria | Trini Torres |
| *Bide-Gain* taberna | Miguel S. Martin |
| Jesus Urbieta | Blanca Lueches |

**943 74 28 75**

# Euroa erabiltzen ikasteko kanpaina jarriko du martxan aurten Udalak

## Horrelako egitasmoa egingo duen Gipuzkoako herri bakarra izango da Elgoibar

Udalak euroa erabiltzen ikasteko kanpaina jan̄iko du martxan aurten. Kanpaina honen bitanez, euroa datorrenean elgoibartarrek moneta berriarekin arazorik ez edukitzea lonu nahi da. Elgoibar izango da, Gipuzkoan horrelako egitasmoa martxan jarriko duen herri bakarra. Kanpainak 10 milioi pezetako kostua edukiko du eta finantziazioan Kutxak, Merkatal Ganbarak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sailak lagunduko dute.

### Lau arloko kanpaina

Datorren urtean, 2001.ean hain zuzen ere, euroa, Europako moneta, indarrean sartuko da. Urte honetan Estatu bakoitzeko monetarekin batera egongo den arren, 2002.ean euroa bakarrik erabili ahal izango da. Elgoibarko Udalak egoera hon̄i atuTe hartu nahi dio kanpaina hau prestatuz. Kanpaina honekin euroaren erabilpena bultzatu nahi da ahalik eta kostu gutxienarekin. Bide batez, elgoibarterrei informazioa eman eta eurora egokitzea erraztu nahi zaie. Proiektu honetan, herritarrek eta herriko merkatariek eguneroko ihardueretan euroa erabiliko dute, horren bidez bere funtzionamendua ikasteko.

Kanpaina honek lau arlo landuko ditu. Lehenengoa, hedapena izango da. Proiektua komunikabide, orri informatibo, kartel etab.en bitartez ezaEutarazi-ko da urtaniletik ataTera. Bestetik, formazioa ere Ianduko da. Hitzaldiak eta tailer praktikoak egingo dira herritarrak eta sektore ekonomiko ezberdinetako kideak eurou jabetzeko. Ikastaroak talde ezberdinei zuzenduak izan daitezke: merkatariak, hirugarren adineko pertsonak, etxekoandreak, umeak eta gazteak. Infonnazioa emateko, Udalak urteko lehen hiru hilabeteetan, Udaletxe azpian (lehen kartzela zegoen lekuan) lokala jarriko du.

Ekintza gehiganiak ere egingo dira eta horien artean etiketa batzuk sortuko dira parte hartuko duten erakundeentzat. Azkenik, proiektuaren ekintza gamantzitsuenari ekingo zaio, euroaren erabilpenari alegia. HorreIa, bi astetan herritarrek eurotan egin ahal izango dituzte eragiketa ekonomikoak. Kutxara joan ondoren, bertan pezetak eurotan aldatu ahal izango dira. Ondoren, kanpaina honetarako apmpos egindako euro txanpon edo bileteekin erosketak egiteko aukera egongo da herriko dendetan. Prozesua amaitzeko, euroak jaso dituzten dendariek, tabemariek etab. Kutxan berriz ere pezetatara itzuliko dute dirua.



*Kanpaina honetan euroaren erabilpen praktikoa egingo da. Kutxan dirua aldatu ondoren, dendetan Europako monetarekin erosketak egin ahal izango dira.*

# Iñlge Aranbarrik Inma Mugerzak irabazi dute nMerkaikeren 2Poortill :tllCoIE"

Honako bi argazki hauek dira *Morkalko Menclizak Elkarteak* antolatutako argazki lehiaketan eta erakusketan saritu dituztenak. Epaimahaian Ongarri argazki kolektiboko J.M. Sarasua eta Jokin Martinez egon dira eta hauen iritziz Ifiigo Aranbarrik Peña Forkara bidean (Pirineoak) ateratako "Mendiko koloreak" argazkiak merezi izan du lehen saria. Bestalde, argazki erakusketa ikusi ostean, herritarrek Inma Mugerzak Azkaraten ateratako "Egunsentia sutan" argazkiari eman diote boto gehien. Guztira 55 argazki aurkeztu zituzten eta Morkaikoko ordezkariek adierazi digutenez, "argazki asko eta politak aurkeztu dira eta maila ona izan da. Gainera erakusketara jende ugari agertu da, eta oso pozik gaude jasotako erantzunarekin".

*Eskuman Ifilgo Aranbarrik Pirineoetan ateratako argazkk. Azpian, Inma Mugerzaren argazki saritua.*





## Lrdo eigobaritar saritu tiluzte MendaMo 1L Lffilaketan



Mendaroko V. Ipuin lehiaketako irabazleen izenak eman ziren ezagutzerajoan den igandean, eta bertan lau elgoibartarrek eskuratu dituzte sariak. B kategorian, Debabarreneko ikastetxeetako 1 eta 2. mailetako 15 ikaslek hartu zuten parte. Maila honetan lehenengo saria Janire Eguren elgoibartarrak eskuratu zuen "Joan zen" lanari esker. Bigarren saria, berriz, "Malko baten kronika" ipuina idatzi zuen Ander Gerenabarrenak jaso zuen. Ikasketa ertainetako ikasleen kategorian Sare Gurrutxaga izan zen lehenengoa "Ilunta.sunean argia" ipuinarekin. Bigarren sailkatua Oihana Apellaniz izan zen "Amodiozko istorio bat" lanarekin. Argazklan, goian Ander Gerenabarrena eta Janire Jauregi. Azpian Sare Gurrutxaga eta OihanaApeIlaniz.

## Jende asko izan zen Olentzeroren kalejiran eta Errege Kabarnatan



Gabonak aspaldi utzi genituen atzean, baina asko izango dira Gabonetako ekitaldiak oraindik gogoan dauzkatenak.Guk txoko bat egin diegu *Atxutviamaika B.*T.-k prestatutako Olentzeroren Kalejirari eta katekistek antolatu zuten Entge Kabalgatari. Abenduaren 24an Olentzero herriko kaleetan ibili zen haurrez inguratuta, ondoren txikienek ikazkinarekin hitz egiteko eta opariak eskatzeko aukera izan zuten. Urtanilaren 5ean, berriz, Erregeekin izan zuten zita heniko gaztetxoek. Zaldi gainean etorri ziren eta kaleetan goxokiak banatzen ibili ostean hiru magoek Plaza Handian haurren eskutitzak jaso zituzten.

## • Txankakuaren zozketan saritutako zenbakiak

Txankakua Merkatari Elkarteak urtero Gabon jaien bueltan egin ohi du zozketa. Aurtengoan ere jadanik ezagutarazi dituzte zenbaki sarituak. Lehenengo saria eskuratu duenak 325.000 pezeta jasoko ditu erosketa txeketan, bigarrenak 50.000 pezeta eta hirugarrenak 25.000. Zenbaki sariduna dutenek txartela eskuratu zuten dendara jo beharko dute, eta irabazle guztiak agertzen direnean egingo da txekeen banaketa. Hona hemen zenbaki sarituak eta hauek agertu ezean erreserbarako atera direnak:

ZENBAKI SARITUAK:

1. 03.638
2. 98.311
3. 22,711

ERRESERBA ZENBAKIAK:

1. 94.223
2. 23.960
3.55.239


E D

# EUSKAL DEMOKRAZ1A proposamena

aurkezpena

19 asteazkena

ELGOIBAR Kultur Etxean

**Arnaldo Otegi**

Arratsaldeko 19:30ean

# Pilota partiduak, Golden Apple Quartet, Taun Taun antzeztaldea eta Ertzantzaren banda San Anton jaietako egitarauaren barnean

## Erakunde filatelikoak, Ansola txistulari dinastiari eskainiko dio erakusketa

*Datorren astelehenean, urtarrilaren 77an, .San Anton eguna dela-eta, ekitaldiz betetako asteburua daukagu elgoibartarrok eskura. Bat baino gehiago dira nabarmentzeko moduko ekitaldiak gaurtik, ostiraletik, hasi eta astelehenera bitartean ,baina horien artean nagusienak ondokoak dira: Golden Apple Quartet taldearen antzezlana ostiralean, Ansola Txistulari dinastiari eskainitako erakusketa,filatelikoa, Taun Taun taldearen "Txiotxioka" antzezlana igandean eta Ertzantzaren bandaren kontzertua astelehenean.*



*Asteburu honetako ekitaldien artean, urtero egiten den Ertzantzaren bandaren kontzertua izango da entzungai Herriko Antzokian.*

Gaur, ostirala, hilak 14, San Anton jaien aitzakian, asteburu luze bateko ekitaldiak hasiko dira. Horrela, gaueko 22:30ean, Herriko Antzokian *Golden Apple Quartet* talde donostiarrak "Radio Golden" emankizuna eskainiko du. Laukote honek bere ikuskizun berria aurkeztuko du Elgoibarren.

Filatelia erakusketaren inaugurazioa

Bihar larunbata, beniz, Ansola txistulari dinastiari buruzko erakusketa filatelikoaren inaugurazio ekitaldia izango da eguerdiko 12:00etan Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. Izan ere, 2000. urte honetan Ansolatarren dinastia sortu zuena jaio zela 200 urte beteko baitira. Inaugurazio ekitaldian oroigarri bat emango zaie erakusketaren kolaboratzaileei eta bertan parte hartzen dutenei. Jarraian, eguerdiko 13:OOetan, ESEBAk, Erakunde Filatelikoen Euskal Federazioak, bilera berezia egingo du filateliari loturiko zenbait gai lantzeko. Ondoren, 14:30ak aldera, ESEBAko eta Elgoibarko Filatelia erakundeko kideek bazkaria izango dute *Baltasar* Elkartean.

"Ansola dinastiaren 200. urteurrena" erakusketa urtarrilaren 23ra arte egongo da ikusgai. Ordutegia honakoa izango da: astegunetan, 19:00etatik 2 I :00etara eta jai egunetan, 12:00etatik I 4:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Gainera, erakusketa hau dela-eta, erakunde filatelikoak zigilu berezi bat atera du. Zigiluak txistulari talde baten irudia dauka eta eskuragarri egongo da nahi duenarentzat urtanilaren I 5ean eta 16an, erakusketa gelan, lehen aipatutako orduetan.

Bestalde, San Anton jaietako ekitaldiekin janaituz, igandean, arratsaldeko 16:30ean, *Taun Taun* talde bergararrak "Txio txioka" antzezlana eskainiko du Herriko Antzokian. Bukatzeko, astelehene,an, San Anton egunean, ohi bezala Ertzantzaren banda etorriko da EIgoibarrera eta kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian eguerdiko 12:30ean.

---

# Frantzja,, Eskandinabia, Hego Amerika eta Europa Ertainello pelikulak emansa Ongarrik "Bestelake ainer zikican

Ongarri Zine Klubak, Gabonetako zikloaren ostean, "Bestelako zinea" izenburupean pelikula emankizunak antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Ziklo honetan sail ezberdinak landuko dira. Honela, Frantziako zineari, Eskandinabiakoari, Europa Ertainekoari eta Hego Amerikakoari tartea eskainiko zaio. Halaber, nekazal giroan kokatutako istorioak, haurtzaroa eta marjinazioa aztertzen dituzten pelikulak emango dituzte. Urtarrilaren 20tik aurrera egongo dira ikusgai filme hauek eta ostegunetan, gaueko 21:30ean emango dira.

Ongarriren 2000. urteko lehenengo pelikula, Frantziako "El chico del chanba" izango da. Bertan, Meliako inrnigrante batek Frantzian dituen bizipenak kontatzen dira. Hurrengo asteko filmea "Under the sun" izenburukoa da. Filme suediar honek nekazal giroan kokatutako istorioa kontatzen du.

"La vida es silbar" kubatarra izango da otsaileko estreinako pelikula. Otsailaren 10ean salaketa zineak lekua izango du Ongarriren ziklo honetan "Rosetta" filmearekin. Zuzendari beIgikarrak langabeziaren arazoa aztertzen du bere lan honetan. Jarraian, hilaren 17an "La vendedora de rosas" filme kolonbiarraren txanda izango da. Honek, "E1 chico del chanbak" bezalaxe, haurtzaroaren gaia jorratzen du, baina Kolonbiako Medellin auzoan girotuta dago kontakizuna. Otsaileko eskaintza amaitzeko, beste salaketa pelikula bat edukiko dute ikusgai herriko zinezaleek. Bertrand Tavernierek, "Hoy empieza todo"-n, irakaskuntzaren gora-beherak erakutsiko ditu.

Beste nekazal ipuin bat izango da martxoko lehendabiziko pelikula, "Los herederos" austriarra, hain zuzen ere. Ondoren, otsailaren 9an, "El coronel no tiene quien Ie eseriba" filme mexikarrak hartuko du lekukoa. Azkenik, ziklo hau "Mifune" filme danimarkairarekin bukatuko da.

## Gabon Zaharretako Feria

# Urte amaieralio azoka berezia

*1999ko abenduaren 31an, Gabon Zahar egunez, urteroko feriarekin esan genion agur elgoibartarrok urte zaharrari. 90 postu jarri zitttzten Plaza Handian, Elizako arkupeetan eta Leku Ederreko parkean, eta hauek ikustera jende ugari inguratu zen. Hala ere, ez zen aurreko urteetakojendetzarik pilatu eta hori baserritar gehienek igarri zuten, salmentek, onak izan arren, behera egin baitzuten. Eguraldia hotza, baina aterri izan zen egun guztian eta horrek goizeko giro ederra arratsaldera arte mantentzen lagundu zuen. Plaza Handian dantzan aritu ziren gaztetxoak arratsaldez eta urtea ongi bukatzeko aukera eman zieten ekitaldiarekin gozatzera hurbildutakoei.*



## XVIII. Gazta Lehiaketa

Goiko-Errota elkarteak urtero antolatzen du Gazta Lehiaketa. Aurten, XVIII. edizioan Aranburu anaiak izan ziren nagusi. Lehenengo saria Zeraingo Olabide baserriko Juan Jose Aranburuk jaso zuen. Bere anaiak, Jesus Aranburuk, berriz, hirugarrena. Bigarren saria Olaberriara joan zen, Mikel Etxezarretaren eskuetara, hain zuzen ere. Juan Jose Aranburuk Eibarko San Andres Feriako gazta lehiaketan ere lehen saria eskuratu zuen, laugarren gelditu zen Ordizian eta bosgarren Legazpian. Baina gazta egileek ezezik, antolatzaileek ere izan zuten saririk. Goiko Errota elkarteak urte luzetan lehiaketa antolatzen egin duen Iana saritu nahi izan zuen Udalak eta elkarteko kideei oroigarri bat eskaini zieten.

# Sariak

- GAZTA LEHIAKETA

1. Juan Jose Aranburu, Zerain
2. Mikel Etxezarreta, Olaberria
3. Jesus Aranburu, Idiazabal

Ikusleek emandako saria: Domingo Goiburu, Idiazabal

- BARAZKI LEHIAKETA

1. Pello Rubio, Elgoibar
2. Adela Andikoetxea, Urduliz
3. Jose Manuel Zabalegi, Donostia

- FRUTA LEHIAKETA

1. Antonio Iparragirre, Mutriku
2. Maria Etxezarreta, Gabiria
3. Miren Agirrezabala, Gabiria

- SALTOKI ONENA

Antonio Iparragirre, Mutriku

- HERRIKO SALTOKI ONENA

Pello Rubio (Txillarre baserria)

- PRODUKTUEN KALITATE, BENEKOTASIJN eta ITXURAREN SARIA

Anselmo Salazar, Elgoibar

- BIRLANDATUTAKO MENDIAK HOBEKIEN ZAINDU DETUEN BASERRIA

Migel Juaristi, Lizundia Txabola Borda (Elgoibar)

**2000** - urtearen atarian, feria usainean esan genion agur urteari elgoibartarrok eta abenduaren 31n gure artera inguratu zirenek. Eguraldia lagun baserritarrak eta kaletarrak bat eginik gazta eta barazki postuak ikusi, taloa eta txahala jan eta dantza egiteko parada ere izan zuten Gabonzahar ferian. Egun hartan gozatu ez zutenek edo feriako giroa berriz daztatu nahi dutenek hona hemen zenbait argazki adierazgarri.


























LASTUR
LASTUR
LASTUR



# Saritutako elgoibartarrak

*Azken Gabon Zahar ferian hiru elgoibartarrek jaso zituzten satiak. Trillarre baserriko Pello Rubiok barazki lehiaketan lehen saria eskuratzeaz gain, bere postua izendatu zuten herriko onena. Zeleta baserriko Anselmo Salazarrek produktuen kalitate, benekotasun eta itxurari ematen zaion saria lortu zuen. Azkenik, Lizundin Txabola Bordako Migel Juaristik birlandatutako mendiak hobekien zaintzeagatik jaso zuen bere saria. Guk saridunekin bi hitz egin ditugu beraien sekretuak argitzeko, baina esan digutenez, sekretu bakarra lana da.*



## Mige| Juaristi

LIZUNDIA
TXABOLA BORDA

**Mendiak hobekien zaintzeagatik jaso duzu saria.**
Bai, guarda forestalak eitxen ditxu jurau lanak. Terrenuak zeinenak dian badakixanez, bertatik pasatzen danian ikusten dau zela daozen, eta guriak itxuria, ondo zainduta daudela iruditxu jako.

**Zenbat hektarea dauzkazu?**
Etxeko terrenuak 25 hektarea dia, pinadiak, larrerakuak, txara zati bat... eta beste 7 errentan ibiltzen ditxut ganaua pastuan ibiltzeko.

**Zein da lurrak egoki zaintzeko egin behar dena?**
Gure lurrak ota paraje haundixa dia, baina gaur egungo desbrozadorekin mendixak garbi eukitzia ez da hain zaila. Nik neuk garbi mantentzeko motibuak badauzkat. Izan ere, ardixak ibiltzen ditxut terreno hoietart eta bertan larretan itxen dabenez zainduta eukitzia gustatzen jata. Batzuk esaten dabe hondakinak erretzia txarra dala eta ni ere ez naiz holakuak itxian partidario, pinadietan matarrazen bat ez badao behinizat.

**Irabazitako diruarekin zer egingo duzu?**
Diruak baino gehixao saria irabaztiak berak in digu ilusiva eta horrek herriz ere lurrak zaintzen jannitzeko gogua eman digu.

## Peo Rubio

TXILLARRE BASERRIA



**Ez da hau izan saritu zaituzten lehen aldia, ezta?**
Ez daukat goguan zenbat aldiz irabazi doten, baina izango dia lau edo bost bider. Hemen ezezik, Deban ere beste horrenbestetan atera dot lehenengo saria.

**Zein da barazki onak lortzeko sekretua?**
Organizazio kontua da dena. Hori dela-eta ni udan hasten naiz azoka hauetan aurkeztu nahi dudana prestatzen eta programatzen. Horretaz gain, presentazioa ere zaindu beharra dago.

**Herriko saltokirik onena ere zuena izendatu dute.**
Goizeko 6:30ean hasi eta hiru orduan justu xamar ibiltzen naiz dena prestatzeko. Gainera, feria aurreko bi egunetan etxean genero guztia garbitu eta prestatu behar da. Baina gero emaitza onak lortuz gero merezi du.

**Aurtengo salrnentak ongi joan al dira?**
Bai, neguko azoketan eguraldi ona tokatu zaigu eta ongi saldu dugu, batez ere Deban. Jendeak, Gabon ostean gorputza garbitzeko berdurak nahi izaten dituela dirudi.

**Sariarekin zer egingo duzu?**
Jaso dudan dirua nire soldata balitz bezala hartzen dut, bestela hilabete hauetan barazkiekin kaja egitea asko kostatzen baita.



## Anse mo Soiozor

ZELETA BASERRIA

**Kalitatezkoak omen dira zuen etxeko produktuak.**
Labela daukaten barazkiak direnez, kontrolatuta dago gure produkzioa. Hondakin kimikoen azterketa egiten dute, baina guk modu naturalean hazten ditugu barazkiak, beraz, ez da emaitza negatiborik ateratzen. Hori izan da saria eman diguna.

**Nola lortzen da produktuen itxura egokia?**
**Egunero** ordu asko sartzen eta gogor lan egiten, baita bezeroei ongi erantzuten ere. Azken finean, lana da baserriaren oinarria.

**Bertako produktuak defendatzea al da labelaren helburua?**
Bai, hala da. Kanpotik hona datozen barazkiak hartu behar ditugu kontuan eta beraiekin **lehian** aritu behar gara. Horretarako produzitzen ditugu bertako produktuak, eta gainera labela daukatenak.

**Zuk zeuk enpaketatu eta meraturako prest jartzen dituzu haserrian barazkiak, ezta?**
**Guk** egiten dugu dena. Barazkiak landatu, zaindu, batu, aukeratu eta behin enpaketatu ostean merkatura ere guk zabaltzen ditugu.

**Pozik lortutako sariarekin?**
Bai, oso pozik. Aurrera jatTaitzeko animoak eman dizkigu eta horretarako jadanik **hasi gara** inbertsioak egiten.

*Maria Jesus Iranzo elgoibarko haur askok ezezik, makina bat gurasok ere ezagutuko du orain arte Atxutxiamaika Begirale Taldean egin duen lana dela niedio. Orain arte diogu, hainbat urte bertan. eman ostean 30 urteko elgoibartar honek taldea utzi eta beste lan batean hasi delako. Guk berarekin hitz egin dugu taldeak eta lanak berak eman dizkion satisfakzio eta buruhausteei buruz hitz egiteko.*

# "*Abasixiamalkak* lagun aske eman dizkit"

Zenbat urte egin dituzu *Atxutxiamaikan?*

- Umeak gustuko nituenez, eta diru piska bat ateratze aldera ,udan begirale lanetan hasi nintzen. Ondoren, Elgoibarren begirale ikastaroa antolatu zuten eta lagun batzuekin batera joan egin nintzen. Gero, urtebetez Udalak kontratatuta aritu ginen umeekin, *Atvutxkunaika* sortu zen arte. Taldearen ardura norbaitek hartu behar zuela-eta zuzendatitza ikastaroa egin, eta duela lau urte koordinazio lanetan hasi nintzen, beraz, begirale moduan 6 urtetik gora egin ditut.

- Zein izan da zure ardura edo lana?

- ZuzPndari postua hartu nuenetik, taldea eta zuzendari laguntvaileen eginbehatrak koordinatzea izan da nire lana.

- Zuretmt zer da *Atxutriamaika?*

Begirale talde bat baino zerbait gehiago. Urte asko eman ditut bertan eta horrek lagun asko eta oroitzapen onak utzi dizkit.

- Zer izan da lan honetatik gehien gustatu zaizuna?

- Gehien udaleku itxiak gustatu zaizkit, umeekin lotum berezi bat sortzen delako. Bestaide, lan hau askotan kanpotik ikusten dena baino zailagoa da. izan ere, errespontsabili tate handia da beste batzuen haurrekin ibiltzea. Lana amaitu nuenean izugarrizko lasailasuna hartu nuen, urte hauetan ezer ez dela gertatu pentsatuta.

- Zer eman eta zer kendu dizu *Abcubriamaikak?*

- Kendu, ez dut uste ezer kendu didanik. Eman, berriz, lagun pila bat. Urte hauetan guztietan ia 60 begirale pasatu dira hemendik. Begiraleak ezezik baita umeak ere. Ni begirale izan nintzen garaiko haurrek oraindik kalean agurtu egiten naute eta hoirek poz handia ematen dit. Eta noski, haur hauen gurasoek ere oraindik galdetzen dizkidate taldeari buruzko gauzak kalean.

- Beti gogoan izango duzun momentu bat?

- Begirale moduan aritu nintzen lehen eguna daukat gogoan, ikasitakoa praktikan jartzeko momentua heldu zenean oso urduri egon nintzen. Begiraleok Errekaldera egindako irteera batean ere oso ongi pasatu nuen eta oraindik akordatzen naiz horrekin.

- Penaz utzi al duzu taldea?

*Atxutviamaika* lagatzeko momentuan pena piska bat sentitu nuen, lagun asko egin ditudalako bertan, baina era berean, urte askoren buruan uzteko gogoa ere baneukan. Orain zerbaitetarako behar banaute laguntzeko prest egongo naiz, baina taldea guztiz utzi dut. Hala ere, ez nuke alde egin nahi urte hauetan lagundu didaten guztiei eskenrak eman gabe.

- *Atxuttiamaika-ren* barne antolamendua aldatu egin da, ezta?

- Bai, hala da. Adinaren arabera banatutako lau talde egongo dira eta maila bakoitzean begirale batzuk izango dituzte, baita talde bakoitzeko koordinatzailea bana ere. Horiek arduratuko dira ekintzak antolatzeaz eta aurrera ateratzeaz. Ondoren, guztia koordinatuko duen arduradun bat egongo da. Honela, lana banatu nahi da, eta begiraleek ardura gehiago izango dituzte.

- Aurrerantzerako zein asmo dauzkazu?

*Atxutviamaika* lagatzeko nengoela, beste leku batetik deitu zidaten eta bertan hasi naiz lanean. Nik enpresaritza ikasketak egin nituen eta lanpostu honek zerikusi gehiago dauka nik ikasitakoarekin. Gremioen enpresa bateko kontuak eramatea da oraingo nire eginbeharra.

### *EESTEEK ESANA*

'Bere dedikazioa eta ilusioa erabakiorrak izan dira Atrutriamaikarentzat. Zuzendaria baino gehiago, laguna izan da begiraleontzat". ELI MORENO, Atxutxiko zuzendaria.



ESUS

AZAROAN

• • • JAIOTAKOAK • • •

- Jon 1riondo Gabiola (Abenduak 2)
- Iker Niebla Moreno (Abenduak 3)
- Kristina Vargas Serantes (Abenduak 6)
- Danel Mugarza San Juan (Abenduak 19)
- Lidia Gonzalez Siota (Abenduak 30)

• • EZKONDUTAKOAK • •

- Angel Ma Vicente Madera eta Paula Rey Martinez (Abenduak 18)

• • • HILDAKOAK • • •

- Maria DeI Carmen Rivas Tesouro, 81 urte (Abenduak 19)
- Quintin Agirre Elvira, 93 urte (Abenduak 20)
- Matilde Ortega Carrion, 79 urte (Abenduak 21)
- Jesusa Oñederra, 77 urte (Abenduak 28)

# Jose Mari Etxabe Etxaniz

## (1912-1979)



• 1912ko abuztuaren 17an jaio zen Arriaga bailarako Karkizano baserrian. 8 anai-arreba izan ziren, bera bigarrena.
• Gaztetako ikasketak eskola publikoetan eta Erasmo jaunarekin egin zituen. Gazte sasoia baseniko lanak eginaz pasatu zuen. Familiarekin eta baserri inguruan auzoko lagunekin ibiltzen zen jolasean: batean etxeko atari aurrean eta bestean auzoko baserrietan.
• Jose Mari, San Luisen kongregaziokoa izan zen. 15 urterekin hasi zen eskopetero ofizioa ikasten *Olazan̄eta* eta *Casablanca* izeneko etxean bere osaba Sebastian Arrietarekin. Bertan egon zen hainbat urtean eta krisia ere ezagutu zuen.
• Soldadutzatik libratu egin zen. 1936ko gerratean militarizatuta lan egin zuen Beasainen.
• 1947an ezkondu zen Elgoibarren Lasturko Murgimendiko Ana Ostolazarekin eta 3 alaba izan zituzten: Ana, ltziar eta Maria Jesus. Suhia, berriz, Jose Luis Rodriguez. Sebastian, anaia, atleta ospetsua izan zen eta koinatua, Jesus Gabilondo, futbolaria.
• Sigma, *Alca-Eiban Petim Loiola* eta *G111171^ tvaga Hennanos* lantegietan aritu zen jubilatu arte.
• Jose Mari familia girokoa, sinesmen handikoa, zintzoa eta lagun artekoa zen. Gustukoa zuen Arantzazura, Arratera, San Antoniora... familiakoekin joatea. Baita Pakitan tabeman takilua egitea ere.
• Ezkondu eta gero ere, surritan joaten zen jaiotetxera, lanean laguntzera.
• Bere zaletasunak euskal kirolak, bertsoak, kantak eta pilota ziren. Gainera, C.D. Elgoibar taldearen januitzailea zen.
• Jose Mari Etxabe 1979ko maiatzaren 8an hil zen 67 urte zituela.

Juanito Gorostiza




# ETXEBERRIA

## **Hileta** zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.
Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Bilte,ia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



Aste honetako erretratu zaharra Itziar Ajuriak Iaga cligu.1967. urtean ateratako argazkia da, Ixidoro Osorok 50 urte bete zituen egunekoa, hain zuzen ere. Mende erdia betetzen koadrilako lehenbizikoa izan zenez, lagunek omenalditxoa egin zioten, Iore sorta eta guzti. Ixidoro eta argazkian agertzen diren gainontzeko lagunak `Rapid' koadrilakoak ziren. Ikusten denez, batzuk purua eta kopa amaitzeko astirik gabe atera zuten erretratua, urtebetetzeko ospakizunak giro onean egin zituzten seinaie. Aipagarria da bestalde, horrelako egun seinalaturako hain dotore jantzi izana, umore onez hartu zuten lagunaren 50. urtebetetzea.

Segidan izen-ahizenen zerrenda emango dugu.

Atzeko ilaran, ezken-etik eskumara:

Gregorio Arrese (t), Eugenio Mujika, Angel Ajubita, Ladis Iñigez, Isidoro Osoro (t), Pako, Migel Ubiria, Karlos Ansola, Jose Arriola eta Jose Antonio Alberdi.

Beheko ilaran:

Julian Mujika, Inazio Barrenetxea, Karmel Ajuria (t) eta Agustin Zabaleta.



*ESKERTZA*

*1999ko abenduaren 28an, 77 urte zituela hil zen JESUSA OÑEDERRA URIAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## 62. Mugerza Krasa lalaren 23an kango da

Juan Mugerza Nazioatteko Krosa urtarrilaren 23an izango da. Aurtengo edizioaren aurkezpena San Anton egunean, hilaren 17an, izango da Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko I 9:00etatik aurrera. *Aurtengo aurrekontua ounzeko inoiz baino arazo gehiago izan dituztela aipatu digute "Ego-Toki"-ko* ordezkariek, "14 milioiko aurrekontua daukagu, baina duela hilabete susto ederra hartu genuen: *Pacharan Zoco,* 9 urtez gure babesle nagusienetakoa izan denak, publizitatea egiteari utzi behar izan zion. Alkoholdun edariek kirol ekitaldietan publizitatea egitea galerazten duen Iege berri bat izan zen arražoi nagusia". Erabakiak lur jota utzi zituen *Ego-Tokikoak,* baina zorionez beste babesle bat topatu zuten azken orduan. "Goi mailako Iasterketa eta kortikalariak izanik, soldatak ere halakoxeak izaten dira. Puntakoek, etortzeagatik bakarrik milioi bat pezetatik gora eskatzen dute. Horrez gain, bidaiak, egonaldiak eta gainsari edo `primek' sortutako gastuak daude".

Herritarren laguntza

*Ego-Toktko* ordezkariek esan digutenez, "erakunde ofizialen laguntza eta publizitateaz aparte, herritanek emandako dirulaguntza ezinbestekoa zaigu ahalik eta saltakari hoberenak ekartzeko. Beraz, eskutitzak banatu ditugu herriko dendetan eta enpresetan hau guztia azalduz. Eskutitzean herritarren inplikazioa eta dirulaguntza eskatzen dugu. Dirulaguntzak anonimoak eta borondatezkoak izango lirateke. Aurrez eskerrak eman nahi dizkiegu henitar guztiei, eta baita hilaren 23an izango den lasterketarako gonbitea luzatu ere".



# Dinamo Halimotxok irabazi du Gabonetako EIX. Koadrilen Arteko Txapelkela

### Eguraldi eskasak zenbait proba baldintzatu zituen




*Dinamo Kalimotxo* koadrilakoak erraz nagusitu dira aurtengo Gabonetako Koadrilen Arteko Txapelketan. *Dinamokoen* na,gusitasunaren erakusgarri, abenduaren 30ean jaso dituzten 4 sariak ditugu: sailkapen nagusiko lehen saria, saskibaloiko saria, kirolari onenaren saria eta krosekoa. Hauen ostean, *Jendetxa* koadrilakoak sailkatu ziren, aurreko 2 ediziotako txapeldunak, alegia. Hiruganen, *Vultur Gripus* taldekoak izan ziren. Aipatu beharrekoa da eguraldiak zeresan handia izan duela aurtengo txapelketan. Eguraldi txarraren ondoiioz, ezin izan zen pala txapelketa jokatu, Ikastolako frontoia potzuz bete baitzen itokinen eraginez. Krosa jokatu zen egunean, berriz, euria eta haize bolara ikaragarriak izan zituzten etsai saltakariek.

## SAIDPEN NAGUSIA

*1- Dinamo Kalimotxo*
2- *Jendetxa*
3- *Vultur Gryphus*

KROSA

Dinamo Kalimotxo

VIRRINDULARITZA

Spartak Pitxote

ARETO FUTBOLA

Jendetxa

SASKIBALOIA

Dinamo Kaimotxo

JOKALARI ONENA

Richard Aranzabal




Richard Aranzabal (ezkerrean)
KIROLARI ONENA



Dinamo Kalimotxo
TORNEOKO SARI NAGUSIA



Spartak Pitxote (eskuman)
TXIPRINDULARITZAKO TXAPELDUNAK



Jendetxa (eskuman)
ARETO FUTBOLEKO TXAPELDUNAK

# Gaur, hilak 14, jokatuko dira San Anton Pilota Txapelketako finalak

## Nagusien mailako finala Yaniz /Martinez de Eulate eta Etxaniz/Erauskin I pilotarien artean jokatuko da

Lagunak Pilota Eskolak Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz urtero San Anton inguruan antolatzen duen Pilota Txapelketako finalak, gaur, hilak 14, gaueko 22:00etatik aurrera jokatuko dira. Aurretik, *Lagunak Pilota Eskolako* pilotari gaztetxoen arteko partiduak ikusi ahal izango dira gaueko 9:00etan hasita. Ondoren, iazko txapeldunek, Etxabe eta Bengoetxea eibartanrk, Aio eta Garcia bikotearen aurka jokatuko dute promesa maillui dagokion fina1a. Nagusien finalari dagokionez, Yanizek eta Martinez de Eulatek, Etxaniz eta Erauskin 1 bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak.


*Dueta 2 urte, Patxi Ruiz eta Enrike Galarza naparrek irabazi zuten San Anton Txapelketa. Gaur egun biak dira puntako profesionalak.*

### Pilotari asko profesionaletara pasatzear daude

Aipagarria da finalerdietan Martinez de Eulate atzelari nafarraren jokuak ikusmina sortu zuela ikusleen artean. Erakutsi zuen joku bikainari esker, DV-ETB Txapelketa irabazi berri duen Saralegi aurrelaria finaletik kanpo utzi zuen. Finalera iritsi den beste bikoteak, Etxanizek eta Erauskinek, alegia, ia izerdirik atera gabe lortu zuten sailkapena, finalerdietako partidua 22 eta 4 irabazi ostean. Beraz, afizionatu mailako jokalari puntakoenak ikusteko aukera izango dute Ikastolako frontoira hurbilduko diren zaletuek. Batzuk profesionaletara pasatzekotan daude eta beste batzuk, berriz, jadanik sinatu dituzte kontratuak. Izan ere, San Anton Pilota Txapelketan parte hartu duten jokalari asko heldu dira goi mailako pilotariak izatera: Patxi Ruiz, Mikel Goñi, Pablo Berazaluze, Iñaki Esain, Patxi Eugi etab. luze bat.

# IANTT/ eta 1Zaer Motori izango dira C.D. Elgoibar taldeko babesleak datozen 2 urteetan


*Argazkiak akordioa sinatu zuten unea jasotzen du. Bertan, Jose M' Urigoitia, `Zaer-Motor'-eko zuzendaria, Julen Konde, C.D. Elgoibarko presidentea eta Antxon Alonso `AN17"-ko zuzendaria agertzen dira.*

C.D. Elgoibarrek, `ANT1" eta `Zaer Motor' enpresekin 4 hilabetetako negozioak izan ostean, 2 enpresok C.D Elgoibar Elkarteko talde guztiak babesteko akordioa sinatu dute. Alde guztiak oso gustura azaldu ziren lortutako akordioarekin. Momentuz, bi urterako izango da, baina sinatzaile guztiek urte gehiagoz luzatzeko nahia adierazi dute. C.D. Elgoibartik aipatu digutenez, "urtarrila amaitu baino lehenago, talde guztiek arropa berriak izan ditzatela da gure asmoa".

## LIII/Lti_e_li ALLIMEEM]

### Futbola

**Haundi 3-** Basconia **0 (3. maila)**
**Haundi 0 -** Zalla **0 (3. maila)**

### Eskubaloia

1.M.H, Elg. 27 - Arras. Almen 19 **(Senior mu1.)**

### Areto Futbola

Zur Ta Lur 7 - Kayak 1 (Autnnom.)
Zur Ta Lur **5** - Aitzud **3** (**1.** maila)

### Esku Pilota

**SAN** krron **TXAPEI NETA**

Promesak (Finalerdiak)
Leiza/Garcia **22 -** Anlxiall/Retegi **13**
Eixabe/Bengoetre,a **22 -** Egimendia/Altuna **20**

**Nagusiak (Finalerdiak)**
Elaniz/liturrategi **22 -** therall/Navarro **4**
Yaniz/Martinez de Eulate **22** - Saraleginnktto

### Idarraga Kafeak 3. saria

**HAUNDIko** jokalari erregularrena 99/00

| JOKALARIA | PUNT1JAK |
|---|---|
| 1- Aranharri | 29 |
| 2- Zulaika | 28 |
| 3- Castro | 25 |
| 4- Polo | 21 |
| 5- Diaz | 15 |
| 6- Alberdi | 19 |
| 7- Bravo | 13 |
| 8- I. Leonardo | 12 |
| 9- Ibarluzea | 11 |
| 10- Castillo | 11 |
| 11- Loren | 10 |
| 12- Baque | a |
| 13-Guarrotxena | 6 |
| 14-Ruiz | 5 |
| 15-Manolo Ramos | 4 |
| 16-Alkorta | 4 |
| 17-Txasio | 4 |
| 18-Caro | 4 |
| 19-Edu | 4 |
| 20-Fernandez | 2 |
| 21-Mikel | 2 |

## Tffliini.~111.111.11

### Pilota, Ikastolako frontoian

**San Anton Txapelkela (Finalak)**
Ostirala, 14
22:011 Etxabe/Bengoetxea - Aio/Garcia (Promesak)
23:00 Yaniz/Martinez de Fulate - Etxaniz/Erauskin I

### Futbola, Mintxetan

**Larunbala, 15**
**15:30** Elgoibar - SportIng de Herrera (0. inf.)
**17:00** Elgoibar - Mondragon (1, erreg.)
**16, igandea**
**12:00** EEgoibar - Hondarribia **(Kad.)**
**16:00** Elgoibar - Zarautz (Jub. **E.L**)

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Larunbala, 15**
**16:00** Unceta Elg. -Arrate Amaria **(Jub. nes.)**
**17:30** Pagoaga Elg. -Arrate Amlia **(Kad. nes.)**
**19:00** L.M.S. Elg. - Elorrio **(Senior nes.)**
**Igandea, 16**
12:30 Gaur Elg - C.D.B. Leizaran (Kad. mut.)

## • *La Union* Ehiza eta Arrantza Elkartearen batzarra, hilaren 20an

Urteroko ohiturari jarraituz, ***La Union*** Ehiza eta Arrantza Elkarteak bere bazkideei jakinarazi nahi die datorren ostegunean, hilaren 20an, izango dela urteroko batzarra. Bilera, ***La Union*** Elkartean bertan izango da eta zuzendaritzaren aldaketa izango da eztabaidatuko den gai nagusia. Lehen deialdia gaueko 21:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 21:30ean.

## • Zikloturisten ipteera urtarrilaren 16an

Elgoibarko Lagun Taldeak urtarrilerako, otsailerako eta martxorako zikloturistentzako itzuliak edo irteerak antolatu ditu. Lehenengoa, pasa den urtarrilaren 9an izan zen. Bigarrena, berriz, datorren domekan, hilaren 16an izango da. Goizeko 10:30ean Txankakuako zubitik hasi, eta honako hau izango da burutuko duten itzulia: Plaentxi, Bergara, San Prudentzio, Oñati, San Prudentzio, Bergara, Plaentxi eta Elgoibar. Guztira 58 km. dira. Nahi duenak parte har dezake.

# Manu Mora judo irakasleak 5. Dan-a eskuratu du

### Dan-ak gerriko beltza lortu ostean banatzen dira

Manu Mora Jaramillo Ibai Judo Klubeko maisuak, Espainiako Judo Federazioak banatzen dituen Dan edo kategoria berri bat eskuratu du. Gerriko beltza lortu eta gero, Dan-ak dira judokaren maila adierazten dutenak. Honako hau Manuk lortu duen 5. Dan-a izan da. Espainiako Judo Federazioko presidenteak, azken bi urteetan elgoibartarrak judoaren alde egin duen lana azpimarratu zuen, hala nola, baita ***Ibai*** Klubeko ikasleek maila guztietan lortu dituzten lorpenak ere.

**Urte asko judoari lotuta**

Titulu hau lortzeko gogor egin du lan Manuk, izan ere, Dan kopurua gehitzeko urteetako lana hartzen da kontutan. 13 urte zituenean hasi zen judoan Manu Agirre maisuaren eskutik. Ondoren, 13 urte zituenetik 23 bete arte, Eibarko Kalamua Elkartean aritu zen eta hainbat txapelketatan hartu zuen parte. Gero, ***Ibai*** gimnasioa sortu zuen Elgoibarren eta gaur egun, judo eskolak ematen jarraitzen du bertan. Manuk azaldu digunez, "judoka asko pasa da ***Ibai*** Klubetik eta urteetan egindako lan neketsua, poliki bada ere hasi da bere fruituak ematen, bai ikasle mailan eta baita maila pertsonalean ere. Sari berri hau, berriz, aurrerantzean ere gogo betez aurrera jarraitzeko lagungarria izango da".



***13 urte zituenean hasi zen judoan Manu. 5. Dan-a urte guzli hauetan egindako lanaren ordaina da.***

LBARREN 44,/ .4.
PUBLIZISTA behar c17

rESPIA7ZEN DA
- Ikasketa ertainak
- Harremanetarako dohaina

BALORATUKO DA
Marketing/publizitate ezagutzak
- Komertzial lanetan esperientzia
Autoa edukitzea

ESKAINTZEN DA
- Urtebeterako kontratua
(soldata finkoa + komisioak)

Izena emateko azken eguna: URTARRILAren 21a (ostirala)
Izena emateko eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra K. E. Ubitarte 4, hehea (Tel. 943 74 16 26)

# Podologia

AMAGOIA ZUBIZARRETA GURRUTXAGA

111 Nola erahaki zenuen podologiako ikasketak egitea?

Batxilergoa osasun arloan egin nuen eta ondoren, zer ikasi erabakitzen hasi nintzen. Odontologia edo podologiako karrera egin zalantzak izan nituen, baina azkenean, podologo gutxiago dagoela-eta, karrera hori egitea erabaki nuen.

• Hirugarren urtean zaude orain.

Bai, hala da. Hiru urteko karrera da eta ni azkenengoan nago. Orain praktikak egiten ari naiz eta oso gustura nago.

• **Zein ikasgai mota dauzkazue?**

Hasieran asignatura orokorrak dira, biologia, anatomia... Ondoren, podologiako ikasgaiekin hasten gara eta haita lahoratorioko praktikekin ere. Eta bigarren mailako bigarren ehaluazioan eta hirugarren mailan, klaseak hartzen ditugu, baina praktikak klinika baten egiten ditugu. Praktika hauekin hasi nintzenean konturatu nin .en. enetan orduan ikasten de

**Z. N ako pra kak dira?**

Unibertsitat n benan klinika bat dago eta herta pazienteekin egiten ditugu praktik11. Hainbat arlo ezherdinetan atitzent gara: bat ntilak egiten ira, hes m, kailoa oane- an, paz mteak es at a duL tamentua egiten ogu. Azkenik, zirugia arloa dago, heme irakasleak ten ditu kirofanoko operazt eta guk gundu egiten diogu.

• **Erreparorik ematen al diz bestee hanketan ibiltzeak?**

Niri ez. Nik beti esan ohi ,auza bat da odontologia ikasten ari direnei ez diegula sekula gakletzen besteen ahoan ibiltzeak nazkadk ematen al dien. Ba guri zergatik eman behar digu eneparoa? Ohitzea da kontua. Badira usain txarra duten pazienteak, baina horrelakoetan maskarila aurretik jani eta nahikoa.



■ **Bartzelonan ikasten ari zara, ezta?**

Bai, Euskal Heirian ez dago karrera hau egiteko aukerarik. Podologia ikasketak eskaintzen dituzten unibensitate publikoak Bartzelonan, Madriten eta Sevillan daude eta aurten pribatu batzutan ere jani dute. Nik hasieran Madrilera joatea pent.satu nuen, baina gero esan zidaten Bartzelonakoa zaharragoa izan anen, irakasleen prestakuntza hobea zela, eta horrela bertara joan nintzen. Lehenengo urtean erresidentzia batean egon nintzen bizi izaten. Orain pisu batean nago eta horrela independente izaten ikasten dela uste dut.

• **Klaseak katalanez al dira?**

Irakaslearen arabera ikasgai batzuk katalanez, besteak gaztelaraz, eta badira bietara hitz egiten dutenak ere. Hasieran arraroa egiten zitzaidan, baina piskanaka ohitu naiz. Dena den, azterketak gazteleraz egiteko aukera ematen digute eta nik hala egiten ditut, katalanez idazten ez baitakit.

■ **Hemendik urte batzutara non ikusi nahi zenuke zure burua?**

Podologia ikasten dugunok hide pdbatua hartzea beste etremecliorik ez daukagu, oraingoz ez baitago Osakidetzan. Beraz, beste batentzat lan egin edo norberak bere kontsulta montatu behar du. Zenbait enesidentziatan ere badago aukera. Nik neure burua norbaitekin lanean edo neure kontura montatutako kontsultan ikusten dut. Haia ere, zorte piska hatekin, baliteke hemendik urte batzuetara Osakidetzan lan egiteko modua izatea.

■ **Zein ezaugarri behar ditu podologo on batek?**

Beti esan ohi digute podologoaren lana eta kailistarena ondo hereiztu behar direla. Podologo batek, kailoak kentzeaz gain, zergatik atera diren ere aztertu behar du. Bestalde, jendearekin tratatzen jakitea beharrezkoa da.

ji#Ancinisteguff s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegta:
Olaso industrialdea
Olasope,
20870 ELGOtBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71

ilattuz~a/ciet~90
Aseguruak

Gure bezeroei zera jakin arazi nahi diegu:
larunbateko, hilaren 15eko, Loteriaren zenbaki saritua duenak irabaziko du zozketatuko dugun lelebista.

# IN ERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulategia:
Larrialdiak ....... 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a ......... 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D Y.A (anbulantÑ) 943 464622
Gurutze Gorria .. 943 743864
Mendaroko Ospdalea.. 943 032800
Odol Emaileak 943 743936

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak. .. 943 740442
PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
Taxi geltolda .... 943 740898

**UDALA**
Euskara Zerbitzua. . 943 744366
Udal Kirol Patronatua . 943 744415
Kultura Zerbitzua. . 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua 943741008
Udaletxea ........... 943 741050
Udaltzaingoa....... 943 741394

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra ... 943 741626
Kiroldegia ........... 943 744415
Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
Liburutegia ......... 943 743525
Musika Eskola .. 943 742145
Mintxeta ........... 943 744315
Parrokia ............. 943 740842
Postetxea ........... 943 741547
Gaztetxea ........... 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**
San Lazaro Egoilza.. 943 740296
Zaharren Biltokia ... 943 740526

**1KASTETXEAK**
Haur Eskola . 943 74 21 41
HHI (EPA) . 943 74 08 80
Herri Eskola . 943 74 08 79
I.M.H. ............ 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
I kastola .......... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN.......... 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia 943 74 34 74

## 14 ostirala

**22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA**
Finalak
Ikastolako tiontoian

**22:30 ANTZERKIA**
Golden Apple Quartet
Antzezlana:
`Radio Golden'
Herriko Antzokian

## 1 larun ata

**12:00 XX. FILATELIA ERAKUSKETAren INAUGURAZIOA**
Kultur Etxean
Gaia: Ansola Txistularien dinastia
Antolatzailea:
Filatelia Elkartea
Hilaren 23ra arte

**16:00 BILBOko MANIFESTAZIOrako AUTOBUSA**
Antolatzailea: EH
Irteera: Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA
"Caprichos deI destino"

## 1G igandea

**10:30 ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
Txankakua zubitik
Antolatzailea:
*Elgoibarko Lagun Taldea*

**16:30 ANTZERKIA**
Antzezlana: "Txio Txioka"
Taldea: Taun Taun
Herriko Antzokian

**18:00 ARKUZKO TIRAKETA**
Kiroldegian
Antolatzailea: *Zarta A.E.*

**18:00 BURUHANDI eta ERRALDOIen KALEJIRA**

**19:30-22:15 ZINEA**
"Caprichos del destino"

## 17 astelehena

SAN ANTON EGUNA

11:00 MEZA NAGUSIA
Parrokian

**11:00 HAURRENtzako JOLAS PARKEA**
Plaza Handian (Euria egingo balu Kiroldegian)

**12:30 KONTZERTUA**
Ertzantzaren Banda
Herriko Antzokian

**16:30 HAURRENtzako PARKEA**
Plaza Handian (Euria egingo balu, Kiroldegian)

**19:00 JUAN MUGERZA KROSaren AURKEZPENA**
Udaletxeko Areto Nagusian
Antolatzailea: Ego-Toki Elkartea

19:30-22:15 **ZINEA**
"Caprichos del destino"

## 20 osteguna

**21:00** *LA UNION* **ELKARTEA ren BATZARRA**

**21:30 ZINE KLUBA**
"El chico del Chaaba"

## 21 ostirala

**21:30 ZINE FORUM-A**
"Frida y Camila"
Hizlaria: Eskarne Larrinaga hezitzaile eta sexologoa
Kultur Etxean
Antolatzailea:
HAIZEA E.T.

22:30 **NATHALIA ELGOIBARko ABESLARIAren KANTALDIA**
Pianojolea:
Silvia Hernandez
Koreografoa: Arlen
Herriko Antzokian
Sarrerak:
Aurrez Pitxintxun salgai

NE
A




**Zuzendaria: Sidney Pollack.**
**Antzezleak: Harrison Ford, Kristin Scott Thomas, Charles S. Dutton.**

### Caprichos del destino

Dutch (Harrisson Ford) polizia da eta Kay (Kristin Scott Thomas), berriz, politikaria. Ez dute elkar ezagutzen, ezta antz handirik ere, baina ezbehar batek bien bizitzak Iotuko ditu. Izan ere, bataren emaztea eta bestearen senarra hegazkin ispripu batean hil egingo dira. Dena den, okerrena biak maiteminduta zeudela jakitea izango da, eta hegazkineko txartela senar-emaztea balira moduan erosi zutela.

## • Txernobilgo haurrak hartzeko fandbei deialdia

*Txernobil* Elkarteak, Txernobilgo hondamendi nuklearrean kaltetutako haur bat edo gehiago etxean hartzeko familien laguntza eskatzen du. Ume hauek Euskal Herrian uztailean eta abuztuan egongo dira. Ukraniako haurrak beraien etxean jasotzeko interesaturik dauden familiak bi modutan jar daitezke elkartearekin harremanetan: 670 41 90 78 telefonora deituz (astelehenetan eta ostegunetan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean) edota elkartera bertara joanez, Bilboko Agirre Lehendakaria, 42. zenbakian asteartetan eta ostiraletan arratsaldeko 18:30etik 20:30era.

## • EHren autobusa Bilboko manifestaziorako eta Arnaldo Otegiren hitzaldia

Elgoibarko EH-k bihar, larunbata, hilak 15 Bilbon egitekoa den manifestaziorako autobusa antolatu du. Autobusa arratsaldeko 16:00etan irtengo da Plaza Handitik. EH alderdiak, EAJ-k, EA-k eta Ezker Batuak antolaturiko manifestazioarekin bat egitea erabaki du baina besteengandik berezita eta lelo propioekin joango da.Ezker Abertzaleko kideek ondorengo leloak dituen pankarta eramango dute: "Euskal Demokrazia. Presoak etxera. AIde hemendik. Euskal Herriak du hitza eta erabakia". Bestalde, datorren asteazkenean, hilaren 19an, Arnaldo Otegik hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean. EHko bozeramaileak "Euskal Demokrazia" txostenaren aurkezpena egingo du. Elgoibarko EH-k antolatutako hitzaldi hau arratsaldeko 19:30ean hasiko da,




## • Arkuzko tiraketa saioa kiroldegian, hilaren 1 Ban

Zarta Elgoibarko Arkulari Elkarteak antolatuta arku tiraketa saioa izango da datorren domekan, hilaren 16an, Kirolegian. Gipuzkoako liga txapelketari dagokion saioa izango da eta arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Bestalde, Zartakoek aditzera eman nahi dute, 12 urtetik autTerakoek haseera eta trebakuntza ikastaroak jasotzeko aukera dutela urte osoan zehar. Klaseak astelehenetan arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izaten dira eta beharrezko materialaz elkartea arduratuko da. Interesatuek honako telefonoetara dei egin dezakete: 94 426 14 68 edo 639 266 340.

**ONGARRI zine kluba**



**Zuzendaria: Cristhophe Ruggia.**
**Antzezleak: Bonzid Yeguang, Mabil Chalem, Galauelah Lagra.**

## El chico del Chiaba

60. hamarkadan Frantzia inmigrante argeliarrez betetzen hasi zen. Pelikulako protagonista argeliar gaztea da. *Omar* du izena, eta bera moduko etorkin txiroak, txabolez osatutako herrixketan (Chaaba) bizi dira hiri kanpo aldean. Pobrezia gorrian bizi den harren, *anarrek* idaztea eta liburuak irakurtzea biziki maite du. Pelikula honek izen handia eman dio bere zuzendariari Frantzian. Berlin eta Valladolideko zinemaldietan arrakasta ere lortu zuen.

## TXANDAK

**FARMAZIAK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 15 | Bidasolo | Bidasolo |
| 16 | Bidasolo | Bidasolo |
| 17 | Fernandez | Fernandez |
| 18 | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |
| 19 | Yudego | Yudego |
| 20 | Zabaleta | Zabaleta |
| 21 | Etxeberria | Etxeberria (Errosario kalean) |

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enparantza 4, Garagarza.Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

16 igandea Idarraga
17 astelehena Doña Mercedes

Erreformak direla-eta, tenporadako arropa

# ERD1 PREZIOAN

[ rtarrilaren 15etik aurreral

z 8541

150



ESKERRIK ASKO

ZURE BEZEROEI

Maidagan

Lois

San Fran1zisko, 20 Tel: 943 74 40 98

OINE1B140FIK

Son Frontzisko, 34
Tel: 943 74 02 35

San Bartolome, 38
Tel: 943 74 08 15

Luvik
oinetakoak

San Bartolome, 28
TeL 943 74 43 45

PITXINTXU

San Frantzisko, 27
Tel: 943 74 32 06

GARATE
J antzidenda

San Har[olome, 13 .Tel: 943 74 ] l 29

ASTIGURAGII
KiRoLIIK

MASKA ONENAK
AUKERA HANDIA

Errosario, 16-18 Tel: 943 74 32 68